# Mendialdea - Errioxa

Eskualdeetako bertso bilduma

2014-2015 ikasturtea

# AURKIBIDEA

## ERRIOXAKO IKASTETXEAK


3. orrialdea........................................Lantziego ikastola – Lantziego – 5. /6.. maila
4. orrialdea.................................Assa Ikastola – Lapuebla de Labarka – 5. maila
5. orrialdea.................................Assa Ikastola – Lapuebla de Labarka – 6. maila
6. orrialdea.....................................................San Bizente Ikastola – Oion – 5. maila
7. orrialdea.....................................................San Bizente Ikastola – Oion – 6. maila
8. orrialdea...........................................................Bastida Ikastola– Bastida – 5. maila
9. orrialdea...........................................................Bastida Ikastola– Bastida – 6. maila


## MENDIALDEKO IKASTETXEAK


10. orrialdea..................................Maeztu herri eskola—Maeztu -. 4. eta 5. mailak
11. orrialdea.............................................Mendialdea ikastetea - Kanpezu - 5. maila
12. orrialdea........................................... Mendialdea ikastetea - Kanpezu - 6. maila


## BERTSO-ESKOLAK


13. orrialdea.......................................................................................... Kontaktuak



**Lantziego ikastola – Lantziego**
5. eta 6. mailak

Korrika egunean
Korrika egiten
Ondo pasatzen dugu
Guztiok abesten
Ta gominolak jaten
Ere bai dantzatzen
Bukatzen da eguna
Baita ere jolasten

Hasi bertsoa egiten
Denbora ez galdu
Ta euskarari buruz
Gauza asko dakigu
Euskal Herrian zazpi
Probintzi dauzkagu
Euskaldunok euskaraz
Hitz egiten dugu

Santa Ageda eguna
Ospatzea helburu
Lagunekin egoten
Zortea daukagu
Kripan, Bilar, Lantziego
Makilak ditugu
Santa Ageda ospatzen
Ondo pasa dugu

Araba Euskaraz bai
Izan da Lapueblan
Ta umetxo guztiak
Daude mahastietan
Baina ere kantatzen
Daude herrietan
Gure Araba Euskaraz
Izan da Araban



**Assa ikastola – Lapuebla de Labarka**
5. maila

**EDURNE ZURI**

Erregina maltzurra
sorgin itsusia
ispiluari galdezka
hori da egia
sorgina haserretu
ispilu bitxia
Edurne pozik dago
sorgina ia ia

Ispilua apurtu
eta haserretu
Pentsatzen bai zabilen
eta kontratatu
Mutila neska hil nahi
ez zuen aurkitu
Oso oso guapa zen
ez zuen akatu

Edurne etortzen da
zorabiatuta
Zazpi ipotx etxera
eraman saltoka
Lan asko egin gero
Ikusita neska
Munstroa uste zuten
baina bai polita

Zazpi ipotx guztiak
lanera joan ziren
zahar bat Edurneri
sagar bat ematen
eta Edurne Zuri
lurrera bota zen
eta sagarra janda
utzi izan zuen

Lurrean aurkitu ta
hantxe ipotx denak
kristal batean sartu
zuten bai ipotxak
sorginak hiltzen du bai
poztu animaliak
Edurne zuriri musu
eman zion printzeak



**Assa ikastola – Lapuebla de Labarka**
6. maila

Ardoaren historia
honela hasten da
arabar Errioxan
ardoa aurrera
bi motatakoa da
frogatzeko aukera
txuria ta morea
Doa bihotzera

Ardo mota asko daude
Zuria, tintoa...
denek alkohola dute
baina ez da mostoa
kolore asko daude
baina gustukoa
morea badelako
edatera noa

Eskuekin hartuta
traktorera bota
bodegara eraman
ta gero borroka
konpetentzia handia
hantxe badago ta
saldu eta erosi
eginez erronka

Horrela bizi gara
ardoa egiten
Arabar Errioxan
mahatsa eragiten
mahastitik hartuta
hazia zapaltzen
bodegara eraman
eta gero edaten

Ardoagatik bizi
Araba Errioxan
bestela herrietan
desagertuko zan
leku askotan ere
kultura barruan
lan asko egin behar dugu
hemen bodegetan.



## San Bizente ikastola – Oion
5. maila

**HIRU TXERRITXOAK**

Amaren etxetikan
joan ziren txerriak
hasi ziren egiten
guztiak etxeak
otsoa da atzetik
jarraitzen duenak
eta etxe txikiak
apurtzen dienak

Txerri txikiak etxea
lastokoa zuen
eta otsoa bota
dena putz egiten
txerrikumea joan
korrika egiten
baina hari begira
otsoa zegoen

Bigarren txerritxoak
zurezkoa zena
otsoa iritsi zen
bota zuen dena
eta txerrientzako
orduan problema
korrika joan ziren
hori zen onena

Hiru txerrikumeak
izututa daude
otsoa ezin zuen
etxea bota ere
adreiluzkoa zenez
gogorra da hobe
etxean ezin sartu
esfortzurik gabe

Hiru txerrikumeak
lanera, lanera
otsoa tximiniatik
igotzeko aukera
hiru txerrikumeak
plan bat egitera
tximinia piztuta
otsoa erretzen da




**San Bizente ikastola – Oion**
6. maila

Euskara erabiliz
Da oso polita
Euskararen eguna
Eginez bisita
Hirugarren eguna
Saltoka ere tita
Euskararen eguna
Egin da korrika

Ingelesa ta euskara
ta ez da erdara
San Bizenten ikasi
Hizkuntza euskara
Hizkuntza badakigu
Ta umeak gara
Ikastola honetan
Hizkuntza euskara da

Aurtengo korrika bai
Badugu hasteko
Ta Arabara goaz
Ondo pasatzeko
Goazen korrikara
Guk hitz egiteko
Etorri korrikara
Behingoz egiteko

Arabako jendeak
Bai laguntzen digu
Eta bere laguntzaz
Hartzen dugu diru
Euskararen eguna
Ospatu behar dugu
Euskararen eguna
Abenduak hiru

Guk ikastola jolas
Bai euskararekin
Eta denok batera
Irakasleekin
Ondo pasatzen dugu
Jolasten denekin
Jolasten euskaraz ta
Mundo guztiekin

Euskara ikasteko
Tori hemen giltza
Ikastolan ikasten
Handituz jakintza
Nahiz ta jende gehienak
Horrela ez mintza
Euskaraz izan behar
Da bai gure hitza

Euskaltegiak Araban
Gurasoak dituzte
Lan handia egiten
Neke eta neke
Euskaraz ikasteko
Badira bi urte
Gurasoak euskara
Erabiltzen dute



## Bastida Ikastola – Bastida
5. maila

**3 txerrikumeak**

Hiru anaitxo ziren
txerriak baitziren
baso batean bizi
etxeak egiten
txerriak potoloak
jan ta jan egoten
bakoitza bere etxea
egiten hasi zen

Lehenengo txerritxoak
lastozkoa egin
otsoak ikusita
ta etxeari min
txerria ikustean
korrika joan arin
ta bere anaiaren
etxera harekin

Bigarren etxetxoa
egurrezkoa zen
otsoa etorri zen
eta bota zuen
txerritxoak korrika
harantz joan ziren
oso pozik zeudenez
bazeuden dantzatzen

Txerriak joan ziren
anaien etxera
txerriak sartu ziren
hantxe babestera
otsoak ezin zuen
bota etxea behera
asko haserretu zen
ta asko gainera

Otsoak teilatutik
behera egin zuen
etxetik kanporatzen
otsoa aritu zen
korrika egin ta gero
hasi zen pasatzen
mina hartu baitzuen
hirurak joan ziren



**Bastida Ikastola – Bastida**
6. maila

KORRIKA BASTIDAN

Bastidako herrian
Korrika egiten
Gu pozik geunden eta
Neska agertu zen
Mezua irakurri
Eta festa asten
Petoa jantzi eta
Euskaraz mintzatzen

KORRIKAREN PAUSOAK

Euskal Herri osotik
Doa lekukoa
Euskara garraiatuz
Jarrita petoa
Lekukoan mezua
Ematen pausoak
Euskahaldun jarrita
Korrika badoa

KORRIKA TXIKIA (GUREA)

Gure herri txikian
Korrika egiten
Denok korrika gabiltz
Petoa eramaten
Furgoneta aurrean
Pankarta gidatzen
Gu eta gure gela
Oso ondo pasatzen.

KORRIKA ARABA ERRIOXAN

Araba Errioxatik
Pasatzen da hara
O denok korrikara
Txapeldunak gara
Lekukoa gidatzen
Haritzen ahal gara
Helmugara iristen
Mugitzen da euskara.

Korrikaren abestia
Pozik gaude guztiok
Korrika goizean
Izango da gurea
Korrika abestia
Euskara zabaltzen ta
Gu Euskal Herrian
Oso abesti onak
Ditugu korrikan

LEKUKOA

Lekukoa daukagu
Gure eskuetan
Guztiok pozik gaude
Korrika egunean
Saltoka egin genuen
Bera irakurtzean
Denok triste joan gara
Baita negarrean




**Maeztu herri eskola – Maeztu**
4. eta 5. maila

**TXOKOLATEZKO ETXEA**

Etxe zahar batean
Haur ta bikotea
Etxe hortan bazuten
Benetan gosea
Hamsel eta Gretelek
Ez zuten suertea
Gurasoek nahi zuten
Mendian uztea

Basotikan behera
Bidea luzea
Greteli bururatu
zitzaion idea
harri koxkorrak bide
hortan botatzea
eta aurkitu zuten
etxeko bidea

ta mendira berriro
bihotzean penak
eta izan zituzten
Ideia zuzenak
ogi apurrak bota
konpondu problemak
txoriek jan zituzten
ogi apur denak

Hasmel ta Gretel zeuden
Negarrez penetan
Ta etxe bat aurkitu
Zuten hantxe bertan
Piruletak teilatu
Eta leihoetan
Txokolatezko etxea
Goxoa benetan

Sorgin zahar gaiztoa
Irten zen atera
Gezurra esan zien
Etorri jatera
Ta Hamsel eta Gretel
Sartuta barnera
Hasmel loditzera ta
Gretel garbitzera

Sorginak gosea bai
Zuen eta asko
Horregatik labea
Bai piztu beharko
Labean bota eta
Erre zutelako
Zoriontsu izan ziren
Bizitza osorako



## **Mendialdea Ikastetxea – Kanpezu**
5. maila

**ARTZAIN GEZURTIA**

Bazen behin artzaintxo bat
Gazte eta atsegin
Oso bihurri baita
Egunero berdin
Mendian aspertuta
Bere ardiekin
Plana antolatzeko
Bazekien zer egin

Ardiekin bazeukan
nahikoa apuru
bera itxaroten ba
uda eta negu
Gezurra esatea
Seguru seguru
Otso datorrela
Altu esaten du.

Herritarrek guztia
sinistu zutenez
joan ziren mendira
korrika bai nekez
joan ziren makilez
aizkoraz ta atxurrez
jendea laguntzera
eta otsorik ez

Berriro gezurra da
Artzainaren festa
Herrikoak bazeuden
Egiten protesta
Egia ala gezurra
Jendeak bai kezka
Orduantxe hasi zen
Artzaina barrezka

Artzaina presaka joan
Herriko plazara
"Joan zaitez etxera
Ta ezin egin traba"
Jendeak esan zion
"zoaz pikutara!!
Ez dizugu sinesten
Gezurtia zara!"

Artzainak ikusi zuen
Otsoaren hortza
Jan zituen ardia,
Baita ere bildotsa
Esaten da gezurrak
Duela hanka motza
Eta otsoak berriz
Hagina zorrotza



**Mendialdea ikastetxea – Kanpezu**
6. maila

**TORIBIO**
Doinua: Aita semeak tabernan daude

*Desastre guztien erruduna*
*Toribio maltzurra zara*
*Horrexegatik zubitik behera*
*Joango zara errekara*

Azterketa gehiegi daukagu
Ta egia ezin da izan
Eta errua Sendoarena
Toribio utzi pakean

Kiroldegia beti bai dugu
Itokin oso handia
Horre errudun zu bai zarela
Eta oso gezurtia

*Desastre guztien erruduna…*

Futbol zelaia eskasa dugu
Ez duelako belarrik
Gure zelaia mokordoa da
Ez dago eskubiderik

Neguan joan da ta ez gaude pozik
Ez da gelditu elurra
Ez dugu klase gehiegi galdu
Eta hori da oso txarra

*Desastre guztien erruduna…*

Etxekolanak gehiegi dira
Sendoa da oso astuna
Ematen dizkigu txarla handiak
Eta non dago komuna?

Kalean eta ere bai gelan
Ez da ezer ez entzuten
Eta zure erruagatik da
Euskara ez dago aurten

Desastre guztien erruduna…

Barcenas atera da kalera
200.000 euroren truk
Baina barruan geratu behar
Dira beste lapur batzuk

Aurten ez dugu ligatu ezer
Toribioren errua da
Eta gu gaude oso haserre
Toribio errekara

# Eskualdeetako bertso-eskolak
# 2014-2015 ikasturtea

Txandrio
bertso eskola

ERRIOXAKO TXANDRIO BERTSO-ESKOLA
Oiongo IKA euskaltegia
Diputazioa 32
31016 OION
Tel: 945 010505 (Arabako Bertsozale Elkartea)
Arabako Bertsozale Elkartea)
e-posta: araba@bertsozale.eus



MENDIALDEKO BERTSO-ESKOLA
Kultur Etxea
01140 KANPEZU
Arduraduna: Julen Zulaika
Tel. 945 010505
(Arabako Bertsozale Elkartea)
e-posta: araba@bertsozale.eus

arabako
bertsozale
elkartea

AMAIA ZENTROA
Pérez Galdós z/g
01002 GASTEIZ
Tel: 945010505 fax: 945288275
Mug: 688695875 - 688616531
e-posta: araba@bertsozale.eus
www. Bertsozale.eus/araba